



BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuak eskaintzen dituen balioak kuantitatiboa eta kualitatiboa dira. Kualitatiboa da alde batetik bizitza errezteko balio duelako eta bestetik aplikazioak diseinu erakargarri bat izango duelako, denbora pasa ahala aldatzen joango dena. Gainera kuantitatiboa da prezioetan konpetitiboak izango garelako eta gainera aplikazio berean hainbat behar asetzeko baliabideak eskeiniko ditugulako. Beraz, jendeak nahi duen guztia aplikazio berean eskura dezakelako besteetan bilatu beharrean.

Lehiakideetatik bereizten gaituzten gauzen artean berritasuna daukagu, inguruan asko ikusi ezin ditugulako eta egunean jendeak erabiltzen dituen aplikazioekin konparatuz gauza desberdinak eskeintzen ditugulako. Gainera lana errazten dugu, egunerokotasunean lagundu ahal dizuten zerbitzuak ematen ditugulako. Gure zerbitzu berdina eskeintzen duten beste enpresa batzuekin konparatuz guztien esku egon ahal izango diren prezioak jarriko ditugu. Eskuragarria izango da, tresna teknologikoak (mugikor, ordenagailu...) dituen edonork izan ahalko duelako ezer ere ez ordaindu gabe. Gainera, erabiltzeko erreza izango da, aplikazioaren diseinua oso argia eta sinplea izango delako. Azkenik, pertsona bakoitzak behar dituen beharrak asetzeko aukera izango du, beraz pertsonalizazioa izango da lehiakideengandik bereizten gaituen beste ezaugarri bat.

Bezeroei laguntza eskeiniko diegu bizitzako hainbat arlotan. Bezeroek aukera izango dute behar dutenaren arabera bertan aukeratzeko. Bost atal desberdin egongo dira:

1. **Klase partikularrak:** Maila eta ikasgai desberdinetako klaseak eskeiniko ditugu.
2. **Garraioa:** Taxi antzeko zerbitzuak eskeiniko ditugu.
3. **Zaintzaile lana:** Umeak, adin nagusiko pertsonak eta maskotak zainduko ditugu.
4. **Erosketak:** Jerdeari haiek eskatutako erosketak egingo dizkiogu.

5. **Etxeko lanetan** laguntzeko aukera emango dugu.

Hau guztia aurrera eraman ahal izateko, prezio baxuekin hasiko gara, orduro 10€ ordaindu beharko dute zerbitzu bakoitzeko. Taxiak eta erosketak izan ezik. Taxiak kilometroka ordaindu beharko dira, kilometroko 0,7€. Bestalde, erosketak egiteko orduan, bezeroak behar dituen produktuak erosteko behar duen dirua emango dio erosketak ordaindu ahal izateko eta gainera, pertsona horrek eginiko zerbitzuagaitik erosketa totalaren prezioaren %10a ordaindu beharko du. Gainera, kalitatea ezinhobea izango da, azkarra eta segurtasun handikoa.